

## LAGUNTZA ESKE

Alaitz San Vicente Martin, 11 urte

*Gasteiz*

Egun hartan beldurrez iritsi zen Aritz etxera. Amak edo aitak jotzeko beldurrez. Poliki poliki ireki zuen atea eta korrika baina ixilean logelara joan zen. Han bere gauzak zeuden: mahaitzat erabiltzen zuen kartoizko kutxa, izara fin eta zahar batzuk eta argazki zahar bat. Argazkian mutiko guapo eta alai bat ikus zitekeen. Ile marroia zuen eta bere begietan zuhaitz sendo baten enborra ikusten zen. Kamiseta berri bat zeraman eta esku artean pelutxezko harztxo bat zuen. Argazki hone-tan bi urte besterik ez zituen. Baina lau urterekin hasi zitzaizkion benetako arazoak. Jolasten ari zen bitartean, pitxar bat apurtu zuen eta jo egin zuten. Handik aurrera edozer egiten zuenean, edo nahiz eta ez egin, jotzen zuten. Mutikoa beti bere harztxoarengana joaten zen negar egitera. Beti berare-

kin eramaten zuen edonora joaten zela ere, eta negar malkotan zegoelarik honela mintzatzen ziztaion:

–Zu nire lagun bakarra zara eta asko maite zaitut. Ez zaitut inoiz bakarrik utziko. Zergatik jotzen naute? Zergatik ez didate arropa garbia edo behintzat nire neurrikoa ematen?

Hori esaten zuen berak zeraman arropa hiru urte lehenagokoa bait zen. Hartzarekin hizketan zebilela amak deitu zion:

–Aritz, etorri hona!

–Bai, banoa. –Hau esan eta hartzari muxu eman ondoren lurtean utzi zuen poliki-poliki. Oso triste eta beldurrez joan zen amarengana. Iritsi zenean horrela esan zion amak:

–Zergatik ez duzu ezer esan etxeratutakoan?

–Aritz mututurik geratu zen. Baina amak berriro esan zion:

–Gor al zaude? Erantzun behingoz! –Oraingoan horrela esan zion Aritzek:

–E.. ez... ez dakit.

–Zer esan duzu? Ez zaitut entzun, altuago!

–Ez, ez dakit.

–Zer da hau? Ez dizut gor uzteko! –esan zion amak.

Zigortu eta jotzen hasi zen berriro. Jotzen ari zen bitartean, aita heldu zen. Amak gertatutako guztia azaldu eta honek ere zaplazteko bat eman zion. Bukatu zutenean, Aritzek korrika alde egin zuen bere logelara. Han bere hartza hartu zuen, eta besarkatzen zuen bitartean negarrez jarraitzen

zuen. Ondoren, eskolako lanak egiten hasi zen hartzarekin. Oso poliki egin zituen negar zotinka zegoelako. Bukatu zuenean hartza utzi gabe lurrean etzan eta berriro negarrez hasi zen. Bat-batean ahots fina entzun zuen Aritzek.

-Lasai, badakit zure gurasoak "deabru" batzuk direla, horregatik etxetik alde egingo dugu, zu eta ni motxila bat hartuta.

-Nork esan du hori?

-Niiik-erantzun zuen hartzak.

-Nor? Zu harztxo?

-Bai, ni izan naiz.

-Nola ikasi duzu?

-Banekien baina gaur erakustea erabaki dut.

-Ezinezkoa da. Ametsetan ari naiz -esan zuen Aritzek.

-Ezetz, egia da, ez zaude ametsetan -erantzun hartzak.

-Ze ondo! Orain zurekin hitz egin dezaket!

-Bai, baina sssss... zure gurasoek entzungo zaituzte.

-Egia da. Hain poizik jarri naiz... -esan zuen Aritzek.

-Orduan, noiz joango gara?

-Lasai, lasai... gauean joango gara.

-Janaria eta mantak bai, baina dirua zer eee?  
-galdetu zuen Aritzek.

-Ez nago ziur, banoa hemen baino hobeto egongo gara ezta?

Hau esan eta motxila hartu zuen.

-Bai, ziur nago.

–Zer sartuko dugu? –galdetu zion Aritzek.

–Janaria, izarak, amaren manta eta diru pixka bat.

Ama eta aita ez zeudenez, dena prestatu zuten gauerako. Bukatu zutenean, ama iritsi zen baina ez zuen ezer esan. Egun horretan goiz joan ziren ohera. Atea pixkat irakita utzi zuen aitak, ama loak noiz hartuko ikusteko. Denbora apur bat pasa zenean, ordu bat inguruan, Aritz besteen logerara joan zen. Biak lo zeuden. Motxila eta hartza hartu eta kalera joan zen. Hartzak honela esan zion:

–Diru pixkat dugunez, trena hartuko dugu, hemendik urrun eramango gaituena. Bestela gura-soekin topo egin dezakegu.

–Ongi da –esan zuen Aritzek.

Trena hartu zuten eta biek alde egin zuten. Azken geltokira iritsi zirenean, manta eta izarak atera zituzten ez hozteko. Herri horretan ez zitzairen ondo joan eta alde egin zuten. Hurrengo herrian hobeto joan zitzairen diru apur bat lortu baitzuten. Hurrengo herria bazekiten non zegoen: hoge kilometro iparralderuntz, baina lo egin behar zuten. Berriro mantak eta izarak atera eta lo gelditu ziren atari batean.

Hurrengo goizean etxean hartutako esne pixka bat edan ondoren, berriro abiatu ziren. Bidean zehar hitz egiten zihoazen biok. Aritzek honela esan zion:

–Norbaitek maitatuko gaitu?

–Bai. Nire ustez egongo da bihotz onekoa den norbait –erantzun zuen hartzak.

–Hara! Herrira heldu gara. –Han jende pila zegoen baina emakume bakarti batek deitu zion Aritzi. Oso emakume ona zela zirudien, baina gizon batzuk honela esan zioten:

–Alde hemendik! Ez dugu “sorginik” nahi! Alde! Aritz harengana joan zen eta horrela esan zion:

–Zergatik deitzen dizute “sorgin”? “Sorgina” al zara?

–Ez dakit. Sorgin bat naizela pentsatzen dute baina oker daude. Nik Arantxa dut izena.

–Ba nik Aritz.

–Bakarrik etorri zara?

–Ez, nire haritzoarekin etorri naiz.

–Nahi baduzu nire etxean gera zaitezke.

–Eskerrik asko baina...

–Ez izan beldurrik.

–Ongi da –esan zuen Aritzek. Egun horretan emakumeak oso ondo zaindu zituen biak. Orduan Aritz “sorgin” bat ez zela kontura zen, ez baitzuen jotzen ezta oihukatu ere. Mutilak dena azaldu zion emakumeari eta honek primeran ulertu zion. Oso lagun onak egin ziren eta emakumeak bere ama izatea galdetu zion. Aritzek baietz erantzun eta biok, beno hirurok, alde egin zuten.

Lau egun ondo ibili ondoren herri batera iritsi ziren. Enparantzan gizon triste bat zegoen eta berarengana hurbildu ziren.

–Zer gertatzen zaizu –galdetu zioten Aritzek eta bere amaordeak.

–Hemengo gizakiak ez zaizkidala ezer gustatzen oso izaera txarrekoak direlako. Ez naute maite –erantzun zuen ibiltariak.

Denbora luzez hitz egiten egon ondoren laurok alde egin zuten. Aritzek dena azaldu ondoren, pertsona ona zela konturatu zen eta ea bere aita eta aitaordea izan nahi zuen galdetu zion. Ibiltariak baietz esan zion eta bideari jarraitu zioten.

Bat-batean herri zoragarri batera heldu ziren. Asko gustatu zitzaaien lauroi eta denbora batez hitz egin ondoren han geratzea erabaki zuten. Hango familia guztiak oso pozik zeuden familia honekin, hau da, Aritz, Hartza, Arantxa eta Ibiltariarekin. Denek hartzarekin hitz egin zuten eta beti-beti alai eta pozik bizi izan ziren handik aurrera.